



nola mantendu lurzoruaren emankortasuna nekazaritza ekologikoan

Zer da lurzoruaren emankortasuna?

Lurzorua material emankorrez osaturiko geruza mehea da eta lurra estaltzen du. Sistema konplexua da eta bertan badira substantzia mineralak, ura, substantzia gaseosoak, landare- eta animalia-organismo biziak eta deskonposatzen ari diren organismoak. Baliabide naturalak lurzoruari esker ugaltzen dira.

Elikagai iturri da animalientzat eta landareentzat, faunaren habitata da lurzoruan, eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sostengua.

Lurzoruaren **emankortasunaz** ari garenean, landareei bizitzeko behar dutena emateko gaitasunaz ari gara: mantenugaiak, ura, airea, eta garatzeko onuragarriak diren ezaugarri fisiko eta kimikoak.

Lurzorua ongi maneiatzea eta haren emankortasuna manei u ekologikoaren zutabeetako bat da.

Nekazaritza-sistemetan erauzten diren produktuak kontsumorako dira; beraz, ez dago naturan gertatzen den lehengoratzetik. Hau da, gai organikoa ez da itzultzen lurzorura deskonposatzera eta hartan bizi diren organismoak elikatzen, hala nola zizareak, bakterioak, ondoak, landareak, etab. Hori dela eta, gai organikoa erantsi behar da lurzoruaren emankortasuna mantentzeko, lurzorua bizirik mantentzeko eta, horrela, aldi berean, landarearendako mantenugaiak lortzeko. Gainera, ona da mikroorganismo onuragarriendako, izurri eta patogeno potentzialak kontrolpean edukitzeko, eta lurzoruaren propietate fisikoak eta kimikoak hobetzeko.

Printzipio orokorrak

- > Gai organikoa erantsiz eta lurzoru bizi mantenduz oinarrituko dugu ongarritzea.
- > Unean-unean, jatorri naturaleko ongarri mineralak erabiltzen dira (harri xehaketak, algak...), guztiak ere disolbagarritasun apalekoak, asimilazio geldokoak, mineral batzuen faltak edo eskasiak lurzoruan eragin ditzakeen arazoak konpontzeko edota azidifikazio eta toxikotasun (Al) arazoak zuzentzeko edo landareek izan ditzaketen nutrizio-desorekak moldatzeko.

Debekatua dago

- > Debekatua dago baimenduz bestelako produktuak erabiltzea ongarritzeko.
- > Debekatua dago herbizidak erabiltzea.

Nola sustatu lurzoruaren emankortasuna?

Babestu dezagun

Higadura eta degradazioa eragotziz

- Laborantza-lanak:
 - Ahal den neurrian, ahalik eta lantze-lanik gutxien egin behar dira.
 - Lurzorua soilik landuko dugu "sasoian" edo "aro onean" dagoenean, hezetasun maila egokiarekin.
 - Lan bertikalak eginen ditugu geruzak ez nahasteko (ahal bada, ez erabili goldea).
- Ez dugu lurzorua biluzik izan behar udazkenean eta neguan. Laboreekin, landare-estalkiekin edo ongarri berdeekin babestuko dugu.

Elikatu dezagun

Materia organikoa maila egokietan mantenduz

- Materia organikoa deskonposatzen duen lurzoruko bizitza sustatuko dugu (ornogabeak, ondoak, bakterioak eta abar); beraz, ez ditugu erabiliko sintesiko fitosanitario kimiko kaltegarriak.
- Materia organikoaren lehengoratzean oinarrituko dugu ongarritzea, simaur konpostatua, konpost begetala, uzta hondarrak, ongarri berdeak eta abar erabiliz.
- Lurzoruko mantenugaien aprobeixamendua hobetuko duten laborantza-teknikak erabiliko ditugu, hala nola txandaketak edo labore-elkarketak.
- Landare-estalkiak erabiliko ditugu; izan ere, hezetasuna mantendu eta higadura geldiarazten dute, belar adbertizioak kontrolatzen laguntzen dute eta babesa eta elikagaia dira lurzoruko bizitzarako.
- Une jakin batzuetan, etxe-abereak sartuko ditugu era kontrolatuan lurzorua ongarritzeko (ardiak, oiloak eta bar).

*lurzoruaren
emankortasuna*

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIA

